1994ko uztailak 8 / 71. zbk.

Astekaria

BARREN
elgoi

# Elgoibar, Saharatik hurbilago



Ark
ELKARTEA
ZEZENBIDE
0000
auto-eskola
San Frantzisko 43,
☏ 74 27 20

IBAI GIMNASIOA

/ri«/KA14, 4Arr4i((7J (;(07b4*



LAU URTETIK GORAKO NESKATXOENTZAT
TATIANA NAGORNAIA errusiarrak emandako klaseak.
(Moskuko Unibertsitatean hezkuntza fisikoan lizentziatua eta Moskuko junior talderako selekzionatua.)



Irailaren 6an hasiko dira klaseak astearte eta ostegunetan 5,30etatik 6,30etara.
Egun eta ordutegi eskaintza zabaltzeko aukera.

*Plaza oso mugatuak!*

**ESKAINTZA BEREZIA**
IRAILERAKO LEKUA UZTAILEAN ESKATUZ GERO, %50EKO BEHERAPENA

111.1 E 111/11 llr 111 111C gLO IL Algk.
Astelehenetik ostegunera 6,30etatik 8,30etara.
IBAI Gimnasi©a Santa Ana 46. Tr 74 07 93 - 74 27 06

elgoiBARREN
Nafarroa enparantza 2
v. 74 41 12
ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udalo.
ZUZENDARIA:
Alberto Agirreazaldegi.
HIZKUNTZA ARDURADUNA:
Anjel Ugarteburu.
ERREDAKZIO KONTSEILUA:
Iñaki Arrieta, Antion Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.
KAZETARIAK:
Ainhoa ladoso,
Jasone Osoro.
MAKETATZAILEAK:
Maite Rementeria,
Edu Sanz,
RusumArEA:
Nekane Ebcaniz.
ADMINISTRAZIOA:
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.
KotABoRATzAilEAK:
Irati Agirreazaldegi, liziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Ekabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Izaro Ekegibel, Enetz Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso GuillO, Maite Iriondo, Elcaitz Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga, Imanol larrahaga, 1-laritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, kiaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inazio Sarasua, Oihana Tarrogual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, lgor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.
BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol larraFiaga
INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
TIRADA: 3.300 ale
LEGE GORDAILUA: S$-1.038/92
ISSN: 1133-021X

elgaiBARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## ZENBAT BURU

## HAMILUY AL392U



# goaz?

Gaurko filosofo eta pentsalari askok, mundu mailan onartuak direnak, Roger Garaudy, Iris Murdoch, Watimo, Mc Ewar, Jose" Monle6n, Juan Goytisolo, Rossana Rossanda esaterako, oraingo gizartearen egocra ikusirik (eta hemen gu ere sartzen gara) hau esaten dute: pixkanaka mamitzen ari den bizimodua, inolako traszendentzia kolorerik gabekoa da, egunerokotasunean murgildua, beste erakargarritasunik eta balio sakonik ez duena, eguneroko zorion berehalakoa izan ezik; eta zorion horren iturria, ondasun materialen jabetza eta gozamena da. Gaur sortzen den zientziak, arteak, literaturak eta gure etxeak erasotzen dituzten komunikabideek, neurri haundi batean, sakontasunik gabeko kultura zabaltzen dute.

Etika balioekiko krisi sakona bizi baldin badugu ere, ezin dezakegu honako galdera hau egin gabe utzi:

1- Nolako gizakia sortu nahi dugu, eta nolako gizartea eratu?

2- Nola zehaztu eta borrokan jarraitu, berehalako helburu sozial eta politikoak lortzeko asmoz, baldin eta ez badakigu edo jakin nahi ez badugu, zein den geure izate-arrazoi sakona, pertsonen bizitzaren sentidua edo giza proiektua?

Gaurko gizakiak, beste garai batekoak bezalaxe, jakin nahi du zeintzuk diren bilatu behar dituen benetako balioak, gizakiaren egiazko askatasunera iristeko. Ez da aski, horretarako, bakoitzari iruditzen zaizkion balio aldakor eta zehaztu gabekoekin. Ez da aski, une bakoitzean legezko adostasun sozial berri bat lortzea ere, balio etikoenganako lotura egokirik gabe.

3- Hainbeste interes kontrajarri eta hainbeste gutizia atseginzale dituen gizarte honetan, ziurta ote daiteke, besterik gabe, bizi ororen babesa eta pertsona eta herri guztien duintasuna?

4- Ez ote da beharrezkoa, gizakiarentzat, gal ez gaitezen, norabide inmanente-traszendente bat?

Gizakiak eta gizarteak ez badaki nora doan, berdin zaio bide bat ala bestea hartzea.

**Enrike Larrariaga**

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria*

[1_11111)11111

**"Nolz zabaldu behar dute San Pedroko kanpa?"** Udaletxeko arduradunekin egon gara eta euren nahia abuztuaren haseran zabaltzea dela esan digute. Halere, ezin omen dute garantiarik eman, zabaldu aurretik belarra bost aldiz moztu behar delako eta momentuz hirugarren mozketa baino ez dute egin.

11111111

Guraso batek deitu digu Herriko Antzokian haurrak egoten direnean sortzen den eskandalua salatzeko. Bere esanetan, "umeei erakutsi egin behar zaie zinean pelikula bat nola ikusi behar duten".

TXALOA

Hemeretzi urteko hiru gaztek idatzi digute intsumisioaren aldeko rock jaialdia antolatu zutenak txalotzeko. Jendeak nahi bezala erantzun ez bazuen ere, antolakuntza bikaina izan ornen zen eta horrela segitzeko animoak helarazi nahi dizkiete.

# ESKUTITZAK

## Emakumeak martxan

Esan beharra dut duela bi aste BARRENen azaldutako Itziar Fernandezen "Kirolaz Blai" artikuluak zeharo poztu ninduela bertan azaltzen baitzuen Mintxetak eta Kiroldegiak, eskaintzen dituzten zerbitzuek adin guztietako emakumeen artean harrera ona izan dutela.

Badira urte batzuek Udaletxean lanean hasi ginela kirola herritar guztiei hurbiltzeko ahaleginetan, adin eta sexu salbuespenik gabe, eta hor joan zaizkigu hainbat buruhauste emakumeei kirol eskaintza zabaltzen beraiek martxan jarri zitezen. Eta badirudi helburuak denon artean, poliki-poliki, lortuz goazela. Aztertu datu hauek: Aurten Elgoibarren antolatzen dugun udako kirol kanpainan emakumearen partaidetza gizonezkoena baino handiagoa izan da lehenengo aldiz, bai haurretan eta baita helduetan ere.
Emakumeak: guztira 250 (helduak: 90).
Gizonak: guztira 110 (helduak: 40).

Mintxetako muskulazio gelan %85a emakumezkoak ditugu eta Olaizaga Kiroldegian ere igerilekuaren erabilera handiagoa da emakumeen artean baina askoz nabariagoa da emakumearen partaidetza antolatzen diren kurtsoetan: karate, aerobic (104), igeriketa...

Emakumeak "bizirik" egon arren, oraindik ere bide luzea jorratu behar du, batez ere, kirol elkarteei dagokionez. Etorkizun itxaropentsua ageri zaigu ernakumezkoen eskubaloi, futbol eta boleiboleko helduen taldeak martxan baititugu.

**Ramon Mujika**
**Udai Kirol Teknikaria**

## Barru barrutik

Goizeko lauak. Larunbat gauak eman du berea eta horrekin batera herri hau eta elgoibartanak ulertzeko geure kapazitateak ere bere onena eman du.

Larunbateko Intsumisioaren aldeko kontzertuak 150 lagun baino ez zituen bildu. Orain hamabost eguneko manifak, 30 bat.

Iparra galdu dugu. Elkartasuna, zentzuna desagertzear daude. ZER DEMONTRE egin behar da jendea hurbil dadin, herritarrok kausa baten inguruan bat egin dezagun? Elgoibarko Talde Antimilitaristaren sorrera edo birsortzea garrantzitsua izan da, indarrez eratu da, jende ezberdina batzen jakin izan du.

Halere, ez dirudi nahikoa izan denik, herriak ez du intsumisioaren "gurdira" igo nahi izan. Askok itxaropentsu begiratzen diogu talde berriari, talde lanak fruituak emango dituelakoan.

Talde Antimilitaristak hartutako bidea egokia dela uste dugu, baina talde honek jaso beharko lukeen elkartasuna, laguntza eta adorea ez dira heldu, eta hori inoren errua bada herritarrona, herriaren errua da. Batzuek arazoa ikusi eta sentitzen ez dutelako; beste batzuek ikusi nahi ez dutelako; eta beste askok ikusi eta sentitu arren, hurbilizera ausartzen ez direlako. Intsumisioak irabaziko badu, indar sozialari esker izango da.

Honetarako antimilitarismoak zubiak eraiki beharko dizkio hurbiltzen ausartzen ez den talde horri lehenbizi. Aurriritziak desager daitezen, beldurra bazter dezagun, eta horrela elkarlana posible izan dadin.

**Lorea Gorostiaga eta**
**Izaskun Arozena**





fil te honetako erretratua Maite Izagirrek lagatakoa da. Maitek esan digun bezala, "1935. urteko estanpa ekologiko bat" da. Altzolako neskatila kuadrila bat omen da. Eguraldi ona aprobetxatuz, bokadiloak eta ardo botilak hartu eta gustura abiatu ziren zelairantz. Zelaitik bajatu zireneko erretraturik ez digute ekarri baina dudarik ez dago ikustekoa izango zela.

Zeintzuk diren belar gainean meriendatzen ari direnak?

Goiko ilaran ezkerretik hasita: Pilar Bernedo, Bitxori Lariz (Altzolabe) (-›), Benita Bernedo, Juanita Isasti eta Francisca Lariz.

Behekoan: Maritxu Irusta (.›), Agustina Irusta (•>), Agapita Soraiz eta Anjelita Bernedo.

Aterpe
TABERNA

lamunarteko
afarietarako leku
aproposa
Malit1411 Satal
San Roke auzoa 5. s' 74 25 95
•Eramateko
CI1LASKO ERREAK
•Hobe aurrez
eskatuz • ero

MIREN
arraindegia

Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

# Elgoibartik Saharako desertura



Argazkiko neska gazteak egunero tea prestatzen zien. Eskuman, lurrazpitik ura ateratzeko makinaria.

**Elgoibar, Saharako Daura herriarekin anaikidetu da. Estatu mailan badago elkarte bat Saharaui herrialdearekin solidarizatzeko helburua duena. Azken hilabeteotan, autonomi elkarte ezberdinak bidaiatu dute Argeliako Sahara desertura eta ekainaren 25ean, Euskal Herriko zenbait herriren txanda izan zen. Gipuzkoatik Oñati, Zumaia, Andoain, Donostia eta Elgoibar joan ziren. Hiru egun pasa zituzten Tindouf izeneko Errefuxiatuen Kanpamentuan.**

01:

da.
rioa
Esp;
kolk
kosi
otsvi
raui
koa

azkc
EEi
rik.
dak,
raul

kan
clei)

zic

raui.
26a

"Saharauiak nazioartetik jasotzen duten laguntzari esker bizi dira."

Tindouf

## Daura

Elgoibar Daura herriarekin anaikidetu zen joan den ekainaren 26an. Bertan izan ziren bi herrietako alkateak, Jose Inazio Elkoro-Iribe eta Mon Ali Kentani. Daura 5.000 biztanle inguru dituen herria da. Ahuntzak eta ganbeluak dituzte eta hasi dira nekazaritzan ere. Batzorde ezberdinetan antolatuak daude, hala nola, osasuna, hezkuntza, biderapen politikoa, artesania, gazteria, kultura, Emakume Saharauien Batasuna, langilegoa, "Media Luna Roja"... Dauran ezezik, Tindouf osoan ere ez da dirurik erabilizen. Lana denen artean banatzen da eta ordainez hezkuntza, janaria eta bestelako zerbitzuak jasotzen dituzte. Klima oso lehorru da, udaran 50 graduko tenperatura egoten da eta neguak ere oso gogorrak dira. Klimaren eta elikadura murritzaren eraginez, bizi itxaropena nahikoa altua da, bada 115 urte bizi izan denik, adibidez.

Dauran botikak, eskolarako materialea, arropa, haurrentzako janaria eta haziak (azenarioa, kipula, tornatea...) behar dira, batez ere.

Desertua ur faltarekin identifikatzen dugun arren, ez dago inolako arazorik, ura lurrazpitik erruz ateratzen baitute.

kanpamentua. Milioi bat pertsona inguru saharaui daude eta horietatik 180.000 bizi dira Tindoufen. Lau wilayaz (probintzia) osatua dago: Ausera, Aaiun, Smara eta Dajla. Wilaya bakoitzaren barruan sei daira (herri) daude eta hauetan launa auzo.

Kanpamentu honek osatzen du Arabe Saharaui Errepublika Demokratikoa eta hemen alderdi bakarra dago, Frente Polisarioa; lehendakaria Mohamed Abdelaziz da. Halere, Herri Kontseiluek giza talde ezberdinak ordezkatzen dituzte eta guzti hauen artean hartzen dira erabakiak.

Saharauiak nazioartetik jasotzen duten laguntzari esker bizi dira. Besteak beste, josteko makinak, autobusak, todoterrenoak, garraioak konpontzeko makinak, botikak, atzerrian ikasteko bekak eta abar jasotzen dituzte. Medikuntzari dagokionean, wilaya bakoitzean ospitale bana dago eta daira bakoitzeko anbulategi bat. Saharauien artean ez dago apenas analfabetismorik. Emakumeek ere badute ikasteko aukerarik.

### Asmoak

Uztailaren 15ean Nazio Batuen Erakundeko idazkariak Saharari buruzko informe bat aurkeztuko du. Horretarako, solidaritate dokumentu bat osatuko da eta agintari ezberdinek sinatzea eskatuko. Oñatiko herria arduratuko da bailarako alkateen sinadura jasotzeaz eta uztailaren 2an Oñatin bertan ospatuko den Batzar Orokorrean aurkeztuko da. Uztailaren 20an, anaikidetu diren herrietako alkateak Donostian bilduko dira Saharauien askatasunaren eta autodeterminazioaren aldeko ekintzak antolatu asmoz.

**"Desertuaren erdian bizi arren, ura lurrazpitik ateratzen dute".**

Azken lau urteotan Donostiara joan dira ume saharauiak; bertan hilabete igarotzen dute. Datorren urtean Elgoibarrera ere zenbait ume ekartzeko asmoa dago, oraindik asmo hutsa bada ere.

Dauran badituzte tornoak, taladroak, rektifikadorak edota mandrinadorak baina ez dakite zein erabilpen eman diezaiketen. Horregatik, saharaui batzuek Elgoibarrera ekartzeko asmoa ere badago hemen funtzionamendua eta aplikapena ikas dezaten.



Elgoibarko eta Daurako alkateak: Jose Inazio Elkoro-Iribe eta Mon Ali Kentani.

tedenari·6)

Barruko erropak
Umeentzako erropak

Frantzisko 10, Tel.: 74 26 19

Fotere
OKINDEGIX
OPILDEGIX

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

JOSE ANGEL ZABALA
URDAITEGIA
Berezitasunak:
Bakilaua
Txerrikiak
Merkatu Plaza 33-34

%.211.11)141
ITURGINTZA
GAS ETA BEROGA1W
INSTALAKUNTZAK

Urasand 26. Tef: 74 05 30



# Gau bat San Ferminetan

San Ferminetako gau batek ez du ezberdintasun handirik inguruko beste herrietako jaietan egin dezakegun gau-pasa batekin konparatzen badugu. Etengabeko juerga eta alaitasun jarraitua nagusitzen dira gau horietan ere. Nere ustez, egunsentiarekin bat hasten da benetako diferentzia, San Ferrninak jai berezi bihurtzenduen diferentzia. Eguna argitzean dianak entzuten dira, han hemenka dabiltzan musika banden, dultzaineroen, txistularien eta txarangen eskutik. Horietako bakoitzak bere gune konkretua du eta bertan mugitzen da. Dianak amaitu eta gero, entzierroaren prestakuntzak hasten dira. Gau-pasarik egiten ez duten korrikalariak kalean zehar somatzen dira, antolatzaileak ibilbide guztia ondo baino hobeto "garbitzeaz" arduratzen diren bitartean (entzierroan korrika egitea ez baita batzuek uste bezain erraza). "Garbiketa" honen bidez, ibilbidea egiteko egoeran ez dagoen jendeari ez zaio entzierroa korritzen uzten. Entzierrotik, zezenen saltakek ateratzen duten zarata eta beldurrak zein emozioak sortutako kili-kilia gorputz osoa zeharkatzen baino ez dira geratzen.

Entzierroa bukatzean gosaria: txokolate beroa txurroekin. Eta animosoena anis kopatxo bat hartzea, terraza batean lasai-lasai eserita gauden bitartean, egunkaria irakurtzen egongo bagina bezala, plantak egiten.

Gosaldu eta gero etxera, gorputzak ongi merezitako atsedena behar du eta. Dagoeneko trote horiek guretzat gehiegizkoak direla esaten diogu gure buruari baina, halere, agian hurrengo urtean ere itzuliko gara Iruñako San Ferminetara, batek daki!

(Erredakzioan itzulia)



**PATXI AJUBITA**

MIZRAIDbla
.... (74777n4 ...···
Uztailak 23, larubcdt]
iitudeko jaletake
MIZO Miklit[n
IZE4/71 t71517170:
Txarriduna jatetxea r 74 04 90
Afaria 9,30etan izango da.



# ijoan al zara Inoiz San Ferm:netara?



### OLGA GARCIA
**23 urte, aerobic monitorea**

Ez naiz sekula joan kuriositatea eduki arren. Joatekotan goizean goiz joango nintzake, iluntzirako bueltatzeko asmoz, nahiz eta gero igual gaupasa egin.



### JAVIER PEÑALBA
23 urte, langabetua

Behin joan nintzen, aste barruan eta asteburuan ere. Jai bezala ondo daude baina agian jende gehiegi. Ez naiz berriro joan baina parean tokatuz gero...



### ELICIO LOBETE
**60 urte, autopistako langilea**

Orain ez baina berrogeita piku urterekin egon nintzen lagunekin. Oso ondo pasatu nuen eta gustatzen zaizkit. Orain ez ditut jarraitzen.



### M.CARMEN GARCIA
41 urte, etxekoandrea

Gustatuko litzaidake joatea, badakizu, lehen ez ginen orain beste irteten. Aukera izanda joango nintzateke. Entzierroak ikusteko egunero jaikitzen naiz.



### M. NIEVES ARRESE
**25 urte, irakaslea**

Gogoa euki arren ez naiz sekula jun ez jatalako parian tokau. Hori bai telebixuan goizero ikusten dot entzierrua baina korridak ez.



### JUAN JOSE CRUZ
31 urte, soldadorea

Lana dela edo diru falta dela ez naiz inoiz egon. Alde batetik gustatuko tzaidake joatea baina bestetik jende gehiegi egoten da, agobiatzeko moduan.

ASESORIA
CUS

AHOLKULARITZA

. KONTABILITATEA
. AHOLKULARITZA FISKALA
, LAN AHOLKULARITZA
ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
MULTINACIONAL ASEGURADORA
ASEGURUAk

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

KAFETEGIA
74 42 65

# Zazp zuzeneko emankizunekin jarraituko du

Zazpiki Irratiak urteko balorazioaren eta asmoen berri eman zuen joan den astebukaeran emandako prentsaurrekoan. Atal ekonomikoari helduz, Zazpikiko kideek autofinantziazioaren beharra aipatu zuten, irratiak ez baitu Udalaren laguntzarik jasotzen. Diru iturri nagusia, aurrekontuaren %80a hain zuzen, txoznetan bildutakoa da. Iaz, esaterako, ez zuten nahi adina diru Iortu eta horregatik aurten hainbat ekintza burutu behar izan dituzte. Alde honetatik herritarren solidaritatea nabarmendu zuten Zazpikikoek.



Aurten martxan jarri dituzten proiektu esperimentalei buruzko balorazio positiboa egin zuten. Hamabi orduko emanaldiak datorren urtean ere bere honetan jarraituko du, kalitatea hobetzen saiatuko direlarik materiale berria eskuratuaz. Albistegiak EGIN irratiarekin bateginez burutu dira. Epe motzera albistegietarako pertsona boluntarioz osatutako talde bat eratu nahiko lukete, herriko albistegiak jorratu ahal izateko. Hitzaldiak zuzenean emango dira, urriko hauteskundeetan politikoekin tanda bereziak egingo eta Mintxetatik partiduak zuzenean eskainiko dira. Izan ere, antena iraunkorra jarrita dago Mintxetan eta emankizunetarako taldea lanerako prest dago. Era berean, plenuak zuzenean emango dira eta herriko elkarteei eskaini zaien publizitatea egiteko aukerak ere aurrera egingo du.

Jaiei begira, Udaletxeak prestatzen duen jai egitaraua osatzeko herritar guztiei zabaldu beharko tzaiekeela gonbitea uste dute "jai herrikoi eta partehartzaileak egin asmoz". Urtero bezala, Zazpikik txozna jarriko du, "ahal bada Maalan jartzea nahiko genuke". Azkenik, uztaileko programazioari buruz aipatu guztira 17 programa izango direla, gehienak goizean.

## ■ intsumisioaren aldeko kontzertuaren balorazioa

Elgoibarko Talde Antimilitaristak hilaren 2an antolatu zuen kontzertura agertu ziren gazteei eta Ikastolako zaindaritzaren arduradun den Mikel Zengotitari eskerrak eman nahi dizkie. Era berean, guztiz positibotzat jo du egun horretan antolatutakoa. Kontzertuan egindako zozketan ()68 zenbakia atera zen saritua. Jabeak 25.000 pezetako afari bat irabazi du.

## ■ Leyreko monastegira eta Yesako urtegira irteera

Zaharren Biltokiak antolatu du uztailaren 28rako. Bidaiak, gosaria, bazkaria eta dantzaldia ere barne, 995 ptako kostua dauka. Izena ematea Zaharren Bittokian izango da eta epea uztailaren 12an amaituko da




**TXan kakua** Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak "Udaberri-uda" kanpainaren zozketari dagokion sari banaketa egin zuen joan den astean. Saritutako sei zenbakietatik hiru baino ez dira azaldu. Argazkian irabazleak: Santiago Abad, Txankakuako ordezkaria, Eugenia Altube eta Ezekiel Galarraga. Bakoitzak 40.000 pezetako eros txekea jaso du, Txankakuako dendetan gastatu ahal izango dutena.

# Behe Calfor iiako gobernadorea iza{ zen bisita egiten

ERREMINTA MAKINA INSTITUTUA

Mexikoko ordezkari talde bat, Behe Californiako gobernadorea den Ernesto Ruffo Appel buru zela, Erraminta Makinaren Institutua bisitatzen izan zen uztailaren 5ean. Gobernadorearekin batera, Mexikoko enpresari eta administrazioko ordezkariek Institutuaren funtzionamendua eta bertan burutuzen ari diren programen berri jasotzeko aukera izan zuten. Mexikarrek, Elgoibarko alkatearen eta zentruko hezkuntza zuzendari eta zuzendari administratiboaren ongietorria jaso zuten. Euskal Herrira burutzen ari diren bisitan Danobat eta CAF enpresak ikusi dituzte eta Jose Antonio Ardanza Lehendakariarekin eta Eli Galdos Diputatu Nagusiarekin egon dira.



**Erleek** ez diote itxura denez gizon honi inolako kalterik egiten. San Frantzisko kaleko 4. zenbakiko teilatuan erlauntza bat kendu zuen astelehenean gizon honek. Antonio Marquez da bera eta esan digunez, erregina harrapatzea da zailena. Behin erregina hartuta, gehiena eginda dago. Ofizioz igeltseroa den arren, erleei buruzko ezagutza sakona dauka. Zaletasuna ez ezik, erlauntzak ere baditu eta eztia ere egiten du. San Frantzisko kaleko teilatuan hartutako erlauntza eztia egiteko erabiliko du.

## ■ Iñigo Otañok "Oteiza" ipuin lehiaketa irabazi du

Ikaspilota elkarteak, Ikastolen Elkartearen eskutik sortutako erakundeak antolatutako I. Oteiza Ipuin Lehiaketako irabazlea Iñigo Otaño elgoibartarra izan da. Landu beharreko gaia pilota eta honen inguruko gorabeherak izan dira. Hemezortzi urtetik gorakoen mailan jaso zuen lehen saria Iriigok "Hogeitabatgarrenean, aidartez" izeneko ipuinagatik. Partidua hogeita bana dagoelarik, pilotariaren buru-bihotzetan dabiltzan pentsamendu eta sentipenak eta une horretako egoera fisikoa nahiz psikologikoa kontatu eta deskribatzen ditu. Epaimahaia Rufino IraoIak eta Joxerra Garziak osatu dute.



## ■ Irteera Canfranc-era

Hilaren 23tik 25era bitartean, hiru egunetako irteera antolatu du Morkaikok Canfranc-era, (Candanehu). Lehen egunean eskaladari buruzko hastapen ikastaroa emango da, bigarren egunean mendira irteera egingo da eta azken egunean rafting-a egiteko aukera izango da. Bazkideentzako prezioa 13.600 ptakoa izango da eta bazkide ez direnentzako, berriz, 15.000 pta. Prezioaren barne daude pentsio erdia hotelean, bidaia, tresneria eta monitoreak.

# Harvi Chana:

# "Euskal Herrira etortzean, shock atsegina izan nuen"

Dagoeneko bi urte t'erdi eman ditu gure artean Ugandako ingeniari honek. Danobat enpresarekin kontratua sinatu, abioia hartu eta Zarautzen finkatu zen, euskaraz edo gazteleraz hitzegiten ez dakien arren. Elgoibarren noiz arte egongo den ez daki, "hori ezin da jakin. Nik, lana dagoen bitartean bertan jarraitu nahi nuke". Familia itsasoaren bestaldean bizi da, bi ordu t'erdira, "kotxea hartu eta Donostiara joatea beste kostatzen zait abioia hartu eta inglaterrara joatea. Bi astetik behin elkartzen naiz familiarekin". Harvi Chanarentzat dena dago hurbil. Familiaren hurbiltasuna ezinbestekoa du, "euskaldunontzat bezela, guretzat ere familiaren elkartasunak balio haundia du".

- Non jaio zinen?

- 20.000 biztanle dituen herri txiki batean, Ginga-n (Uganda). 16 urtera arte bertan bizi izan nintzen eta oraindik orain ere han biziko nintzatekeen garai hartako diktadore batek beratatik atzerriratu ez bagintu.

Nolatan ingeniari?

- Familian ingeniaritzak sustrai sakonak ditu. Aita ingeniaria da, nere anaiak ere bai. Odolean daramagun zerbait da.

- Zer dela eta Elgoibar?

- 1988tik 1991ra Inglaterran egin nuen lan. 1991n krisia iritsi zen bertara eta lan egiten nuen konpainia itxi behar izan genuen. Orduan, etorkizuna erabaki behar eta Danobatera etorri nintzen aurreko enpresatan ikasitakoa gauzatzera.

- Zelan Elgoibar moduko herrixka batean?

- Bere bentajak ditu. Hiri handietako kotxe iladarik ez dagoenez, presioa ere txikiagoa da. Gainera ohitu naiz hemen, bueno Zarautzen, bizitzen. Jendea da oraindik ni ikustera ohitu ez dena. Euskaldunak ez dauka Euskal Herritik kanpo ateratzeko joerarik. Euskaldun gehienen-tzat Zarautz edo Donostia azken muturra dela esango nuke.



Hemen, alboko bizilagunak ze ordutan etxeratzen zaren ere badaki".

- Teknologia berrien aurrean, nola ikusten duzu Elgoibar?

- Euskal Herria aldaketa teknologikoak aurrera ateratzeko moduan dago baina euskaldunak tradizionalak izateak, aldaketa gehiegi ez onartzea dakar. Irekiagoa izan behar da aurrerapenak onartzeko.

- Euskal Herria ezaguna al da makina erremintaren arloan munduan zehar?

- Makina munduan sartuak dauden herriaide gehienek ezagutzen dute eta Espainia mailan zer esanik ez. Alemanian, Inglaterran, Frantzian, Suizan, Italian... ezaguna da, erreferentzi puntu garrantzitsua da Euskal Herria. Baina, mundu hau ezagutzen ez duena folklorismoan eroriko da.

Zein etorkizun du makina erramintak?

- Gaur egun Euskal Herriak konpetidu dezake puntako teknologian. Gure etorkizuna puntako teknologian dago, merkatua berriagoa da eta oraindik ez dago hainbesteko konpetentziarik.

- Lehenego aldiz etorri zinenean, zerk deitu zizun atentzioa?

- "Shock" atsegina izan nuen. Mendiak, bailara berdeak... Mendian paseatzea asko gustatzen zait. Gustatu ez zitzaidana jendearen pilaketa izan zen. Kaleko etxeetan, bata bestearen gainean pilatuta baleude bezala bizi da hemen jendea. Ugandako herria txikia zen arren, zabalera handia zuen eta norberak bere etxea bestearengandik nahikoa urruti zeukan. Hemen alboko bizilagunak zen ordutan ateratzen zaren ere badaki...

- Zer da Euskal Herritik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

- Euskaldunaren izaera asko gustatzen zait. hasearan oso itxia da, baina egunak pasa ahala poliki-poliki irekitzen den horietako da. Nire izakera ere horrelakoa da eta horregatik ondo konpontzen naiz. Lagun gutxi baina onak, hori da nire legea. Paisaia eta janaria ere oso gustukoak ditut. Gutxien, jendeak tabernetan duen portaera da. Zaborrak hautsontzira bota beharrean lurrera botatze hori ez zait batere gustatzen.

IZASKUN ELIZBURU

# Txiki BARREN

**O.H.O.KO IKASIEEKIN EGINDAKO 5. GEHIGARRIA**



Ikastetxe guztiek dute ohitura kurtso bukaeran gurasoei eskainitako egun bat ospatzeko. Argazkian ikus dezakeguna Pilar ikastetxeari dagokio. Bertan izan ginen eta gurasoek ezezik, haurrek ere izan zuten aukerarik ondo baino hobeto pasatzeko. Gaztelu puzgarriak, umeek antolatutako joku ezberdinak, ohe elastikoak eta txutxeriak saltzen zituzten posturik ere bazegoen, besteak beste. Jolastokian, baloia hartu eta futbolean ari zirenak ikusi genituen. Beste zenbaitzu txirrindua hartu, kaskoa jantzi eta Ginkana berezian parte hartzeko prest zeuden. Halere, gurasoen eguna izanik, haiek ere izan zuten non eta nola dibertitu, hauentzat bazkari aparta egon baitzen. Eguna gauerarte luzatu zen, pintxo ugariz sabela bapo bete eta gero, musikaren erritmora dantzaldia egon zen, askok eta askok bildurrik gabe gorputza mugitu eta ziur disfrutatu zutela.

## IRRI-MIRRIKA



## Jakitunen eskutik

# Irlisi da uda

ai jaunak, hala da; eta ez jarri harridura aurpegi-Urik, hortaz badira pare bat aste eta.

Uztaila: opor usaina, eguzki epela (edo gogorra), gou lasai eta gozagarriak kalera irten eta arnasa sakon hartzera gonbidatzen dutenak, hasi dira jadanik.

Honekin batera, halere, opor garaiko psikosia (udaberriko gripea bezalatsu) epidemia gisa ageri da egunotan. Urtean zehar ingelesa, balleta, trikitixa, karatea, futbola, mekanografia, BASIC eta COBOL informatika eta abar izan dituen haurrak, orain ez du ezer egitekorik (jolastu soilik). Egun guztia etxean, bazter guztiak nahasten.

Sasoi hau izan da askotan bada haurrak udalekuetara bidaltzeko erabakia hartu izan dena, aurreko urteetan kasu hau berau gertatu zaion jendea, hauen lagunak... Uka ezina da udalekuak mesedegarri direla haurrentzat: oso ondo pasatzen dute, ez daukate eskolako presio hori... mila faktore! Eta gurasoak ere seme edo alabaren irriparra ikusita satisfazioa nabari dute: "haur hauek ez dakite jolasten eta behintzat udalekuetan ikasiko dute".



XABIER GORRITI
AISIALDIKO BEGIRALEA

Arrazoirik ez zaie falta. Gero eta sofistikatuagoa eta espezilaizatuagoa den gizarte honetan, haurrek gero eta tresna gehiagoren beharra, gero eta gauza antolatuagoa edo zehatzagoa behar duela dirudi jolasean egin dezan. Agian arazoa entrenamendu faltan dago: urte guztia stressean ibili den neska-mutilak orain ez du kapazitaterik jolasak asmatzen hasteko.

Udaleku itxiak, udaleku irekiak, ingelesa ikasteko, alemana, txinoa, kanpamentuak, geldiak edo ibiltariak, auzolandegiak... mila modalidade daude eta horien berri izateko udaberria da deitzeko eta jakinaren gain egoteko sasorik onena.

Baina hauek ere ez dute miraririk beren eskuetan, haurrek {eta gurasoek} astialdia behar den moduan erabiltzen (erabilera aberasgarri bat ematen) ezin dute hamabost egunetan ikasi, eta agian ez da ikasteko kuestioa ere... Hartu momentu bat, utzi ikastaro anitz horietako bi {edo orduren bat behinik behin} eta ikasi jolasten, atseden hartu eta zertan ari garen konturatzen, hori norberak bakarrik egin dezake.

## Ze iritzi daukazu MiPeedda ri buruz?

au4itaA,1444, 4/4/40.,

~ 1e/uo, kae,64,0 Lue"

utele 46.,i.WW 1 4444:

IKER ASTIGARRAGA. 9 urte



`03a 4414to 'Ahtdiji,eh. 1aU 1-443U3,4,4, 1,a — 4'4,

duena egiten du."

NEREA ALVAREZ. 13 urte



'044D V4j1,0 Itag) t■U 44410 att4e4A' ZUeL(40:

IKER ZUBIAURRE. 9 urte



Joanes
Rodrimuez
14 urte

# Galde debaide

1.- Ba al dakizu dantza egiten? Zer?
2.- Musika talde baten zer izan nahi zenuke?
3.- Nori bidaliko zenioke eskutitz bat? Zer jarriko - zenioke?
4.- Sekula jantziko ez zenukeen arropa?
5.- Maiteminduta al zaude?
6.- Hartu duzun susturik handiena?
7.- Zein beste izen izan nahi zenuke?
8.- Udako onena, eguzkia ala kerizpea?



Ana Fernandez
de la Lama
14 urte

1. **Bai, euskal dantzan nabil eta agintaria badakit.**
2. **Gitarrajolea, musika naturala joko naban, ez oso fuertia.**
3. **Nere amari eta aber noiz datorren galdetuko nion.**
4. **Gonia.**
5. Ez, **neskak zatarrak dia.**
6. **Nere barkotik buruz behera jausi nintzanian uretara.**
7. **Ander gustatzen jata.**
8. **Kerizpia, berua ez jata gustatzen.**

1.- **Piska bat,** gehixen **disko musika, bakalaoa eta hola, disko light hoietan dantzatzen dut.**
2.- **Hard-Rock talde bateko kantantia.**
3.- "Guns **and Roses"eko kantantea den Axel Rose-ri.**
4..- **Kanpanadun prakak.**
5..- **Orain ez baina egon izan naiz eta polita da.**
6.- **Hegazkinean ibili nintzen lehenengo aldian susto handia hartu nuen.**
7.- **Orain daukadana gustatzen zait.**
8.- **Eguzkia, dudaripe.**

---

## AlS1110A MAILO 12 urte



"Energi forma bat da. Normalean udan egiten du eta denok hondartzara eta pistinetara joaten gara. Beroak duen txarrena sargoria da."

## AITOR CIDIESIDO 12 urte



"**Niretzat** beroa udako egun sargoritsu hoietan izaten dugun sentsazioa da, baina ez da beharrezkoa udan izatea."

## IVAS1 MORALLS 7 urte



"Neretzat beroa "zopa" da baina oso goxoa da. Eta oso ona da sabelerako."

## GGIZOIS GUTIMIREZ 10 urte



"Mikroondas batean sartzen zarenean edo eguzkiak jotzen dizunean sentitzen duzun asfisioa."

## IVAN COSIDE 8 Urte



"**Itsusia eta txarra** da. **Osasunera**ko kaltegarria da. Oso kaltegarria da bururako."

## ICANA 1211411ELID 10 urte



"Eguzkiak izpiak botatzerakoan gure planetara, guk gizakiok sentitzen dugun gauza arraro bat."

# Denborapasak: ezetz asena u!

## 1. Nor da eigoibartar hau?



## 2. Zer galdetu diegu beraiek eranitun hau ernateko?

.........................................



**MIREN GOÑI**
**13 urte**

"Isla tropikal batetara, Hawaira jungo nintzan, berua daualako, itsasuak ere garbi-garbixa ematen dabalako... Lagunekin jungo nintzan, neskekin, hondartzan etzanda egoteko, gauez dantza piskat egin, islia bisitatu..."

**IVONNE GUTIERREZ**
**12 urte**

"Eurodisneyra lagunekin bi aste pasatzera, han dauden tiobibo eta atrakzio guztietan ibiliko nintzake, guztia ikusi... Batez ere "montaña rusa" haundi-haundi hoietako batean ibiliko nintzake pila bat aldiz, ez dit batere bildurrik emalen."



## 3. Asmakizunak:

- Gozokiz eginak
  zaporez finak
  jantziz apainak,
  ahora sartzeko biluztu
  eta kitto, hantxe urtu!
  Zer da?.........................
- Kristal polita
  beti bustita,
  ugari neguan
  nahiago udan
  Zer da?..............................
- Lumaia ederra dut
  handia eta zorrotza mokoa,
  beti errepikatzen dut
  entzun eta ikasitakoa
  Zer da?.........................

## Zein zulotxotan ezarri behar ditugu zirkuluak, marrazkia berregiteko?




gtv Dia 'D/E '12/1 -Doni oia '01110X0.9
-wazirisod rindo alnuaz lyou upol cuoN -·z
'zi10915311·9502l -·1 :NliNrIZ.LNY113

A●●●●●● Ei●●●●●● C●●●●● . . .

# Mariam Lehr

## Partikularretako irakaslea



• **Zenbat denbora daramazu?**
IAurten hamar urte egingo ditut.
**aZein materia irakasten dituzu?**
>Matematika, fisika eta kimika.
**eZein asignatura da zailena ikasleentzat?** INire ustez fisika.
• **Zer da zailagoa, ulertaraztea ala adi mantentzea?**
OIrakastea orokorrean, baina talde batzuekin zailtasunak izaten ditut adi egon daitezen.
• **Guztira zenbat ikasle?**
IHirurogeita hamar, talde bakoitzean zortzi pertsona gehienez.
• **Urtean zehar ala orain ikasle gehiago? 00rain** oso gutxi, hirurogeita hamar horietatik zazpik bakarrik suspendidu dute.
010**Klaseak goizez ala arratsaldez?** >Goizez nahiago dut baina ezinezkoa denez, arratsaldez ematen ditut urtean zehar.
• **Irakaslea ala ikaslea?**
lirakaslea. Ikasle izatea atzerantz egitea izango litzateke.
• **Euskaraz ala erdaraz?** I Erdaraz, euskaraz hitzegiten dudan arren, hobeto moldatzen bainaiz erdaraz.
• **Azterketa garaian ikasleen tentsioa jasaten al duzu?**
11Bai. Gainditzen ez badute errudun sentitzen naiz nolabait.
• **Zientziak ala letrak?** 1Zientziak, noski.
**eLanbide honen alderik gogorrena?**
**00so** neketsua dela eta aldi berean eskergabekoa.
• **Etxerako tarea asko bidaltzen al duzu?**
Ez, bat ere ez. Klaseko zalantzak argitzera etortzen dira.
• **Irakasle gogorra ala biguna zara?**
**INonnala,** elkarrenganako errespetua baitago.
• **Selektibitatearen alde ala aurka? OEsanahirik** gabeko azterketa bat da eta jendea eliminatzeko forma bat dela uste dut.
• **Piper egitearen alde ala kontra?**
IlGuztiz kontra, klasera joan behar dela uste dut.
• **Aprobatzeko formula?** IIkastea.
111**Nora joango zara oporretan? I**Alicanten ezkontza bat daukadanez bertan igaroko ditut aurtengo oporrak.

**MAITE IRIONDO**

## MUNDIALA

DOINUA:
Aita izena kanta beharrak.

Mundialaren eraginpean
telebistaren esklabo
munduak ez du konponbiderik
oraingo hontan akabo
gizartearen balore eskala
eraldatu da zeharo
altareetan jarri degunez
edozer baino gorago
futbola nola bihurtu degu
kirol bat baino gehiago? (BIS)

Lehendabiziko izan genuen
partidu baten dopina
nor zen jakinda guztiontzako
normala edo jakina
CoIombiatik gero albistea
negarra eta samina
beranduegi izan baino lehen
har dezaiogun tamaina
pertsona baten biziak ez du
balio gol batek aina. (BIS)

Euskaldunekin osatutako
ekipo espainiarra
goruntz dijoa oharkabean
pausoz pauso tirri-tarra
Euskadik ere badu berea
antolatzeko beharra
Javi Clemente jarriko degu
gidaria eta izarra
euskaIdunentzat ez da izango
inola seinale txarra. (BIS)



**GERMAN MEABEBASTERRETXEA**




**Mandiolla S.L. Egurrak**
**Domingo Arrizabalaga**
**SALEROSKETA**
**BASOEN MOZKETA**



Juan **Mugerza 3.** 74 12 56 (mugikor.) **908 1 7 1 0** 42

**P4,9,4,4<,74**
**ETXEBERRA** Ahizpak
Sanla Ana,1
Tel. 74 01 40 ELGOIBAR

# Irailean hasiko da Heiduentzako Hezkuatza Iraunkorra

**laz hasi zen Elgoibarko Helduen Hezkuntza Iraunkorreko lehenengo esperientzia. Lehenago bazegoen talde bat Eibarren eta nahi zuten elgoibartarrek bazuten aukerarik bertara joateko, baina, ikasle gehienak etxekoandreak eta langileak izanik, ez zitzaien batere ondo etortzen autobusa hartu eta harantz mugitzea, eguneroko erritmo normaia gehiegi apurtzea litzateke.**



Pedro Muguruza ikastetxean kakaktzen da HH1-ren zentrua

11onela, jendea mugitzen hasi zen, sinadurak jasotzen, Elgoibarren bertan helduen hezkuntzaz arduratuko zen zentru bat sortu asmoz. Udaletxeak berak eskaera egin zuen delegazioan eta zenbait oztopo gainditu eta gero irakasle bat bidali zuten. Eibartik ere beste batzu lekuz aldatu ziren eta Elgoibarrera etorri. Bi talde sortzea posible egin zen eta gaur egun Pedro Muguruza ikastetxean kokatzen da aipatu zentrua.

Halere, ordutegia zela eta jende asko ezin izan zen talde hauetan sartu. Gainera, irakasleen urritasunaren ondorioz badira maila batzuek orainarte eman ez direnak, hala nola, alfabetizazioa (idazten eta irakurtzen ikastea) eta goi mailako graduatuak. Datorren ikasturterako bi irakasle gehiago eskatu dituzte, falta diren mailak ere eman ahal izateko.

Helduen Hezkuntza Iraunkorrean 16 urtetik gora duen edonork har dezake parte. Halere, 16 urte dituzten horiek Ikasbatera bidaltzea izaten da lehenengo ahalegina; horrek funtzinatzen ez badu hasten dira Helduen Hezkuntza Iraunkorrean.

Ikasturte berrirako orainarteko sistema aldatu nahi da. Lauhllebeteka funtzinatuko du, eta maila bakoitza gainditzeko bi lauhilebete gainditu beharko dira, gutxienez. Hau da, hasi aurretik, bakoitzak azterketa bat egin behar izaten du, hartara, pertsona horrek daukan maila neurtzen da eta horri dagokion maila zehazten, bai eta maila hori gainditzeko zenbat lauhilebete beharko dituen finkatzen. LauhiIebete bat amaitu eta gainditzean, hurrengoa ahal duenean egiteko aukera dago, ez da derrigorrez jarraian izan behar. Egunean hiru ordu emango dira aurrerantzean, orain arte bi orduko klaseak ziren. Azterketak Elgoibarren bertan egiten dira eta maila bakoitza gainditzean dagokion ziurtagiria jasotzen da. Klase teorikoez gain bestelako tailer batzuek ere izango dira, informatika tailerra, adibidez; baina oraindik zehaztu gabe daude.

Interesatua dagoenarentzat, rnatrikulazio epea irailaren lehenengo hamabostaldian izango da. Hona hemen telefono zenbakia: 74 08 80.

INLOZU, C.B.

Leguntzeak - Nikeldura eta margotze disdiratsuak
- Margo ilunetan adituak - Labean sikaturiko pinturak
( simurgarriak, etab...) urdin ilundurak Pintura ixurketak
( ugar kentzea, garbiketak eta piezen margoketa)

Pedro Mugurza, 14-16. Tel-Fax: 74 16 31

TXURI BELTZ

Eilill(STTEL

San Franzisko 38

# Jausoro Dorretxea I

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiot Ana Etxebarriari. Bera da, IRATI S.A enpresak eskatuta eta Aldundiaren laguniza ekonomikoarekin bcitera, Santa Klara komentuan 1992ko urrian eta azaroan egin ziren premiazko indusketa arkeologikoen zuzendaria.

Indusketa arkeologikoa IRATI S.A enpresak Santa Klarako orubean urbanizazio bat eraikitzeko asmoa zuelako egin zen, bertan ageri baitziren Jausoro jaunen dorretxea eta XVI. mendez geroztik dokumentatua dagoen isurbide gangaduna.

1:Jausoro dorretxea, Elgoibar hiribildua sortu ondoren, harresiz kanpo eta Deba ibaiaren beste aldean garatzen den errebalean zegoen kokatua. Geroago, auzoa eratzean, Santa Klara izena hartu zuen, komentuaren eraginagatik.

D Dokumentu historiko eta aztarna arkeologikoen arabera, argi dago ertaroko dorretxe bat zela.

LXV-XVI mende bitartean, Jausoroko Pedro Gonzalez eta Sarasuako Maria Ramus bizi izan ziren dorretxean. Hauek izan ziren Santa Klara monastegiko fundaizaileak.

JJausoro abizenak azkoiiiar jatorria duela esan arren, 1440ko idatzi batean Jausoroko Martin lbafiez eta bere emazte Ganboako Maria Lopez, Karkizano Beheko dorreixearen jabe bezala agertzen dira.

Sarasua abizena Eigolbar sortu zen garaitik familia printripalekin lotua agertzen da. Toponimo bezela, 1346ko abencluaren 20ko hiri-gutunean Elgoibarko hiribilduko muga bezela agertzen da.

Dorretxeak oinplano kruangetuarra zuen. Harri naturalean zegoen zimentaturik eta hormak kararrizkoak ziren, eskantzuok (iAzinak) harlanduzkoak eta gainontzekoo harlangaitzez eginak Horietako horma batean oinarrituta eraiki zuten isurbideko (Deba ibaimekin bat egiten duen errekastouren ubidea) ganga.

EiDorrebceanen beheko sdairua baino ez zen kontserbatu baina hau ere etxebizitza berriak egiieko bota zen. Hormetan hiru irekitzen ziren, arku zorrotz eta gezi-leiho bi.

PSLLO ARRIETA





## Antonio Azpiazu San (1917-1978)



- Elgoibarren jaio zen 1917. urteko urriaren 31an.
- Parrokiako koroko kide izan zen. Elizako ekitaldi liturgikoetan organoa jotzen zuen noizean behin.

  Larunbat arratsaldeko mezan abesten zuen haurren abesbatzaren sortzaile izan zen.
- 1964. urtean Elgoibarko Izarrako txistu akademiako sortzalle izan zen. Hil arte akademiaren ardura izan zuen, bera izan zelarik zuzendaria.
- Herriko gaztetwen artean txistuarekiko zaletasuna sortu zuen. Santa Zezilia egunean 80 edo 100 txistulari bildu izan zituen.

  Gaurregungo Txistularien Taldea osatzen duten kideak bere ikasleak izan ziren.

CY 1978. urtean hil zen, urriaren 28an.







# 118

## Rugby taldea egiteko deia

Elgoibarko 17 bat gazte, rugby talde bat osatzekotan dabiltza. Hauetariko batzuek aritu dira lehenago rugbyan, Eibarko taldean hain zuzen. Taldea osatzeko 20 lagun behar dira gutxienez, horregatik 17 urtetik gorako gazteei dei egiten zaie datorren asteazkenean, hilak 13, arratsaldeko 8,30etan Kultur Etxean izango den bilerara ager daitezen.

## Arrantza txapelketa

La Union elkarteak bazkideentzako arrantza txapelketa antolatu du Zumaiako Bedua auzoan hil honen 17rako. Txapelketa goizeko 9etan hasi eta eguerdi partera bukatuko da. Izena emateko azken eguna hilaren I 3a izango da Garagarza erlojudendan. Izen-ematearen zenbatekoa 1000 ptakoa izango da, jubilatuek 800 pta eta haurrek 500 pta ordaindu beharko dutelarik. Postuen zozketa hilaren 15ean egingo da arratsaldeko 7,30etan.

## Futbol jaialdia

C.D. Elgoibar Kirol Elkarteak OHOko 3, 4, 5, 6, 7, eta 8. mailako haurrentzako futbol jaialdia antolatu du datorren larunbaterako, hilak 16. Txapelketa Mintxetan izango da egun guztian zehar. Zazpi kidez osatutako taldeak osatu beharko dira parte hartzeko, "futbol a 7" deritzon modalitatea izango baita. Izena emateko epea hilaren 14an bukatuko da eguerdiko 12etan Muxi kirol dendan. Orain arte 8 talde bakarrik apuntatu dira, aproposena 20 talde apuntatzea izango zelarik.

# Santi Garay:

## "Urazpian, ikusle izanda aluzinatu egin daiteke"



**1 Nola doa buzeo ikastaroa?**
- 25 bat pertsona dabiltza, gazte zein nagusiak. Urbiziko buzeatzaileok ematen dugu ikastaroa, baina ez dago arduradunik. Haseran Diputazioko laguntzak zirela eta hasi ginen ikastaroak antolatzen.

**1 Zenbat ikastaro mota daude?** - Legezkoetan, batzuk botilakin ibiltzeko dira eta besteak titulua ateratzeko. Botilakin ibili aurretik oinarrizko jakintzak eduki behar dira: flotatzen jakin, "golpe de cadera" ematen jakin, antiejuei ura kendu, Hasera ikastaroa ematen da lehenengo, perfekzionamendua gero, eta azkenik, botilarekin ibil-tzeko eta titulua ateratzekoikastaroa.

**1 Ba al dago horren gaineko kontrolik?** Botilak alokatzeko klub bateko kide izatea beharrezkoa da. Eskafandrismoak teknika handia eskatzen du. Deskonpresioak heriotza ekar lezake. 42 metrotara 1() minutuz egon zaitezke gehienez, hortik gora istripu arriskua areagotuz doa eta ondorioak, benetan latzak izan daitezke. Legez kanpo ibil daiteke, baina arriskutsua da.

**1 Zer lortu nahi duzue ikastaroarekin?** - Badago eguzkia hartzen baino, aletak, antiejuak eta tuboarekin, urazpian gusturago dabilenik. Ezer ez dakien bati funtsezkoa erakutsita, izugarri ondo pasa dezake, Urgainean flotatzen, ikusle hutsa izanda, aluzinatu egin daiteke. Urbizikoek gizonen kirola izatearekin eta fisikoki sendo egon behar izatearekin apurtu nahi dute. Gainera, ez da horrela, emakume asko baitabil ikastaroan.

**1 Zer irakasten duzue?** - Haurrei, ondo pasatzen, batez ere, eta ur azpian ibiltzen. Nagusiek titulua atera nahi badute, perfekzionamendu ikastaroa ematen zaie. Zergatik? Titulua ateratzea garestia da eta horregatik zertan ari zaren jakitea komeni da. Bestetik, titulua ateratzeko forman egon behar da.

**1 Beldurra ematen al du urazpiak?** - Ur azpira lehenengoz sartzean, emakumeek batez ere, erreakzio psikologiko gogorra izaten dute, urduri jartzen dira. Jendea haseran, itsas ertzean ibiltzen da. Hurrengoan haitzetara gerturatu eta arrainak ikusten dira. Egunen batean, urazpian dagoen guztia ikusten bukatzen duzu.

**1 Zer dago kostaldean?** - Zikin asko. Ez dago errespeturik. Arrainak egon badaude, otarraina, lanpernak,... baina ez nahiko genukeen adina.

• **Adina: 34**
• Gehien erakartzen zaituen arraina? Olagarroa.
• Handiena? Urbizikoekin hartu nuen 15 kiloko kongrioa.
Hobbyak? Pintura eta buzeoa, noski.

1111 ANC UST11Z I sa
ZERAM1KAK
Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11
Biltegia:
Arregitorre, 10 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

OIERKI IGONGAILUAK
E
ii Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua
(943) 11 35 15 • 11 ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 E1BAR

# Carmen Pereak bostgarren postua lortu zuen 800 metroko Espainiako txapelketan

Ego-Tokiko korrilari gazte honek, 800 metrotako junior lasterketan korritu zuen joan den astebukaeran Bartzelonan izandako Espainiako txapelketan. Hemeretzi urterekin, Junior mailan korritu duen azken urtea izan da honoko hau, datorren denboraldian Carmen promesa mailara pasatuko da eta. Aurten 800 metrotako Espainiako bostgarren postua eskuratuta bukatuko du denboraldia. Amaiera bikaina.




11 ■ Carmen Perea Mintxetako atletismo pistan.

Carmen Pereak Espainiako txapelketarako 2:19ko gutxiengo denbora egitea lortu ondoren, hilaren lean, 2an eta 3an Espainiako Junior txapelketan korritu zuen, emaitza ezin hobea lortuz: Espainiako bostgarrena. Sailkapenean postu ona egiteaz gain, marka pertsonala hobetzea lortu zuen, 2:15:38ko denbora eginez.

Txapelketako Iehen egunean sailkapen seriea korritu zuen Carmenek. Bere taldean bigarren geratu zen eta finalerako sailkatzea lortu zuen. Finaleko lasterketan Carmenek gogor eutsi zien buruan zihoazen hiru korrikalariei. Lehen 400 metroak lasai egin zituzten. Bigarren biran, berriz, lehen zihoazenek erritmoa bizkortu zuten eta Carmenek bostgarren sartzea lortu zuen heImugan. Txapelketan maila handiko korrikalariek hartu zuten parte, guztira 35 partehartzaile izan zirelarik. Ego-Tokiko arduradunak oso pozik daude Carmenek lortutakoarekin, kontutan izanda lehia oso gogorra izan zela. Carmen Pereak uztailaren 3In bukatuko du denboraldia, uztailean zehar zenbait memorial korrituko dituelarik.


HEMENDiK
BODEGA
Gure berezitasunak:
Kazuelatxoak
Olagarroa
Haragia erreta
Pedro Muguruza 20. Tel. 74 25 00

ory? XABIER
1LEAPAINDEGIA
Sicatz.‘
eta citotua
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

UDA BERRI
ELGOIBAR

# Ikas-IBllai eskubaloi taldeak kadeteetan jarraituko du datorren denboraldian

Eskubaloiko Ikas-Blai taldea bostgarren postua eskuratuta etorri da Murcian izandako Espainiako txapelketatik. Elgoibartarrek lehiakide gogorrak izan dituzte; Espainiako talderik sendoenak, alegia. "Bostgarren postua izugarrizko lorpena bada ere ikastetxe bateko gela bateko neskaz osatutako talde batentzat, hirugarrena merezi genuen", dio Eneko Kortabarria entrenatzaileak.

Txapelketako partidu erabakiorra iazko txapeldunen aurka, Valenciakoen aurka, jokatutakoa izan zen. Partidu honetan 19 eta 11 galdu zuten. "Esperientzia gehiagoko taldea zen Valencia, baina ez horregatik kalitate gehiagokoa. Gure taldean Valencia tokatu ez balitz, hirugarren postua ziur izango zatekeen gurea". Hirugarren eta laugarren postuan geratu ziren taldeak elgoibartarren azpitik zeuden kalitatez, eta bostgarren postua erabakitzeko jokatu zuten partiduan Estatu mailako talde handi bati irabazi zioten.

Elgoibartarrek urtean zehar 20 bat partidu jokatu dituzte, eta Estatu mailako taldeek berriz 70 bat inguru. Eneko Kortaharriak talde handien entrenatzaileen ahotik jakin izan duenez, "ekipo hauek partidu gehienak tentsio handiarekin jokatu ohi dituzte, partidu zailak jokatzera ohituta daude. Gu, berriz, partiduak erraz irabaztera ohituta gaude, sakrifizio handirik gabe, eta horixe izan da gure errurik handiena, esperientzia falta".

Datorren denboraldian Elgoibar K.E. Eskubaloi Taldean jarraituko du ekipoak kadete mailan. Etorkizun handi-handiko taldea da Enekoren iritziz, "arazoa baina dirua da, eta kolaborazioa ere bai. laguntza egonik, Elgoibarko nesken eskubaloia punta-puntara hel daiteke".

Ikas-Blai osatzen duten neskak: Lore Agirreazaldegi, Silvia Vazquez, Irma Aldazabal, Leticia Astrai, Ainhoa Aduriz, Irati Uriguen, Vanessa Gonzalez, Amaia Jauregi, Idoia Oiarzabal, Leire Dieguez, Arianne Peñaranda, Ainhoa Torres eta Patricia Rodriguez. Entrenatzaileak: Eneko Kortabarria eta Jose Peñaranda.



Ikas-Blaiko neskak. Alboetan bi entrenatzaileak.

**KIROL FLASNAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK**



## Aguazilak irabazile!!

San Pedro bailarako jaietan ez da kirolik falta izan. Idi dernak, harri jasotzaile gazteak, ahari jokuak eta, nola ez, pilota partiduak. Igande goizean San Pedroko frontoian partidu "amistosoa" jokatu zuten Javier Osoro eta Aitor Loidi "aguaziIek" eta Xabier Loiola eta Salegi bikoteak. Azkenean Osoro eta Loidi aguazilak irabazle. Hogeitabi tantu aguazilek, hemezortzi Loiola eta Salegi bikoteak. Bikote irabazlea kopak eskuan dutenak osatzen

***;Pod upS***

# df)ta adedval gabe

Uda heldu da, azkenean bukatu dira azterketak eta ikasten dihardugun gazte gehienoi zera datorkigu burura: Nola pasa uda? Normalki erantzuna faktorerik gogorrenaren araberakoa izan ohi da, faktore ekonomikoaren araberakoa, alegia. Dena dela, nahikoa aukera daude.

Hiru hilabeteko oporraldia duten gazteentzat, irteera polita atzerrira hizkuntza bat ikastera joatea izan ohi da, "au-pair" modura esaterako. Modu honetan hizkuntza bat ikasten duzun bitartean, herrialdea ezagutzeko aukera ere izaten da, batez ere bertakoak eta beraien ohiturak. Txarrena, 40 orduz astean eta zenbait gauetan, astean birritan gehienez, umeak zaindu behar dituzula da. Abantaila, 7.000 eta 8.000 pta inguru ematen dizutela eta denbora librea ere geratzen zaizula dibertitu edota bidaiatxo bat egin ahal izateko. Ah! gainera, mordo bat ligatzen da. Jendeari graziosoa iruditzen zaio hizkuntza bat ikasteko eta egoitza ordaintzeko umeak zaintzea.

Beste aukera bat, askozaz abenturazaleagoa, motxila bizkarrean hartu, agur esan etxekoei, eta elkarte batzuek, Gaztedi, Diputazioa, elkarte kulturalak,... antolatzen dituzten ruta horietako batera apuntatzea. Bidaia hauek ez dira oso garestiak izaten eta bizikletan zein oinez eta autobusez egitekoak izan daitezke. Hori bai, beti naturarekin etengabeko kontaktuan dauden bidaiak dira, azterketa garaian etxean entzerratuta egon ondoren, batere gaizki ez datozenak, gainera.



Hor dago, era berean, "Inter-rail". 30.000 pta ballo duen txartel bati esker Europan zehar bidaiatzeko aukera dago hilabeteko epean. Albergista txartela ateraz gero 1000, 2.000 ptagatik alberge horietako batean igaro daiteke gaua. "Inter-rail" deritzona egin duten gehienek esperientzia errepikatu dute.

Ideia original bat izanez gero, herri batzuetan dirulag,untzak eskaintzen dituzte oporrak ordaindu ahal izateko, Ermuan adibidez.

Bidaia agentziek ere "Mundo Joven" izeneko oferta bereziak izaten dituzte 30 urtera arteko gazteei zuzenduak; prezio nahiko merkeak izaten dira normalki.

Azken aukera, aurrera eramaten zailena beharbada, udako hilabete hauetan lantxo bat aurkitu eta irabazitako diruaz datorren negua erosoago igarotzea litzateke.

IMHKO IKASLEAK

## Mircni Osorok "Ruqa del Quetzal" eglng© diu




Mirari Osoro TVEleko Miguel De la Cuadra Saleedoren "Ruta del Quetzal" programako irabazleetariko bat izan da. Froga fisikoak eta kulturalak egin behar izan zituzten 290 bat lagunek eta horietatik I44k lortu dute bidaia egiteko pasea. Brasil, Paraguay, Uruguay eta Argentina ezagutuko dituzte, bertan Guarani rnisioen ibilbidea eginez. Guztira 36 herrialdetako ikasleak joango dira, 4.200, hain justu. Abuztuaren 27an hasiko da bidaia. Lehenengo astea Madrilen egingo dute. Bertatik, Granada, Toledo, Cordoba eta beste zenbait tokitara egingo dituzte bisitak. Benetako abentura, ordea, irailaren 5ean hasiko da, hegazkina hartu eta Brasilera abiatuko baitira. "La mision" pelikulan ikusten diren parajeak ezagutuko dituzte, trasantlantiko bat izango da garraiobidea, bertan, historiako klaseak jasoko dituzte eta guarani hizkuntza ere ikasteko aukera izango dute. Lo, berriz, oihanean egingo dute. Eurak iritsi aurretik ejerzitoa pasako da ibilbide guztitik intsektuak, mamorroak eta bestelakoak fumigatzeko; ha1ere, dagoneko hartu ditu zenbait txerto eta oraindik ere makina bat geratzen zaizkio. Urriaren 5a da itzulerako data. Mirarik parte hartzeko bidali zuen lana 10.000 ikasleren artean izan zen aukeratua.

Mountain-Bike bat eta uretako paipo bat salgai, biak prezio merkean.
74 26 91

Jende famatuaren ARGAZKI ORIGINALAK SALTZEN DITUT: Julen Guerrero, Alkiza, Sergio Dalma, Alejandro Sanz, Annistades, Duncan Du,... eta abar. Idatz iezadazue eta eskatu zerrenda. Sartu gutunazalean 1 8 ptako 4 sello.
Helbidea: Igor Galo.
Zarauz Hiribidea 13 -3 ezk.
20 009 Donosti

KANPING KARRO BAT ETA OSAGARRIAK saltzen ditut. Egoera onean.
*Zr 74 19 39 Mari Sol

Karabana bat sartzeko GARAJE EDO LOKAL BAT ALOKATU nahi dut.
lEr 74 29 52
Gauez 8-10 bitartean

LOKAL KOMERTZIAL BAT EDO GARAJE BAT saltzen da Urasandin.
'Es 74 21 86

MOTOR bat daukat SALTZEKO G,A.C. Onix 2. 900 km.
Gauez, 8etatik aurrera.
a 74 29 32

GARAJE BAT alokatzen da pista beltzean. Marraduna da.
a 74 21 64

GARAJE BAT alokatzen da San Roke 5ean. Marraduna.
Er 74 08 05

BROTHER TRIKOTOSA BAT SALTZEN DUT. Bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.
17 74 18 51

SURF tabla bat saltzen dut 20.000 ptatan "Esus" markakoa.
'Zr 74 07 61 Julen
(afal orduetatik aurrera.)

San Roke auzoan GARAJE BAT alokatzeko daukat.
s' 74 00 67 Martin

PISU BAT ALOKATZEKO daukat Institutu ondoan. irakasieentzat aproposa. (3 gela, sala, sukaldea eta 2 hainu)
'W 86 11 92

PISU BAT ALOKATZEN DUT CAMBRILSen. Uztailaren 2. hamabostaldia eta ahuztua.
.zr 19 27 33
Deitu 20,(10etatik aurrera.

PISU BAT daukat salgai Ermuaranbiden.
71 74 27 12

ETXE BAT SALTZEN dugu Pedro Muguruzan. Egoera oso onean eta guztiz amueblatua. Bigarren pisua.
1T 74 08 57

BUNGALOW BAT ALOKATZEN DUT Santa Polako hondartzako lehen iiaran. Ekaina, uztaila, iraila.
ir 74 27 02 Ana

APARTAMENTU BAT DAUKAT BENIDORM-EN alokatzeko inoduan. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua. Labadora eta aire girotua.
Tc 741657/113215

PISU BAT daukat alokatzeko ALCOCEBER-en (Castellon). Uztailean.
1T 74 21 86 Maria

## Bestelakoak

ENPRESARIALESKO 1. kurtsoko asignaturen errepasoa emango lukeen pertsonaren bat nahi genuke.
:r 74 33 17

Eguzkitako BETAURREKO BATZUK GALDU ditut Urasandin.
s' 7431 07 Mari Carmen.

Eguzkitako BETAURREKO BATZUK TOPATU ditugu Santa Ana kalean.
a 7416 26

Hilak 23 osteguna gizonezko ERLOJU BAT GALDU nuen San Pedrotik Hiru Iturrira bidean.
5. 7401 90

## Lana

PARTIKULARRAK ematen ditut euskaraz eta erderaz. OHO eta BUP.
IT 74 28 53 Alazne

Edozein TESTU MOETA ORDENAGAILUZ PASATZEN da eta "Curriculum Vitae"ak egiten dira.
74 44 47

BBB eta UBlko FISIKA ETA MATEMATIKAKO KLASEAK ematen ditut. Euskaraz eta erderaz.
Ir 74 23 01 **Jokin**

FRANTSES KLASE INTENTSIBOAK ematen ditut. Uztailean zehar.
'n* 74 04 59 Jacqueline.
8etatik aurrera deitu.

Klase partikularrak ematen ditut. Matematikak, kosteak eta kontabilitatea orokorrean. Ekainean eta uztailean.
-Er 74 21 65 Jabi

## PREMIAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak 461111
Txanda hartzeko 743354
Planning 74 29 50
Alkoholiko Anon imoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria 743864
Mendaroko Ospitala 756264
Drogomenpekotasun Z 741008
Odol Emaileak 743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
PESA (Eibar) 112131
Taxi Geltokia 740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
Kirol Zerbitzua 744415
Kultura Zerbitzua 742158
Mendaroko Udala 756100
Ongizate zerbitzua 743736
Udaletxea 741050
Udaltzaingoa 741394

### BESTELAKOAK

Caritas 740142
IMI 741196
Kontsumo Bulegoa 743088
Liburutegia 743525
Musika Eskola 742145
Minixeta 744315
Polikiroldegia 741361
Postebea 741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia 740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola 74 08 79
I.M.H. 74 41 32
Institutua 74 02 67
Ikastola 74 44 41
L.H.I 74 44 80
Pilar Ikastetxea 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
El Diario Vasco 74 40 73
El Mundo 11 85 05
74 22 67
El Correo Español 74 10 82
Egin 11 84 21
Deia 74 11 57
Zazpiki 74 34 74

## ffI OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA
✓ Odol Emaileen egoitzan.
(P.M. Urruzuno 8).

22,15 ZINEA
"La Señora Doubtfire"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera:: 300 pta.

## 9 LARUN BATA

19,30 • 22,15 ZINEA
"La Señora Doubtfire"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 300 pta.

## IO IGANDEA

16,30 ZINEA
"La Señora Doubtfire"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 100 pta. (Haurrentzat)

22,15 ZINEA
"La Señora Doubtfire"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 300 pta

## II ASTELEHENA

22,15 ZINEA
"La Señora Doubtfire"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 300 pta

## 1 ASTEARTEA

22,15 ZINEA
"La Señora Doubtfire"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 300 pta

## 13 ASTEAZKENA

20,30 RUGBY TALDEA OSATZEKO BILERA
,/ Kultur Etxean

## 141 OSTEGUNA

19,30 HITZALDIA
Gaia: Soka Dantza, Udal Dantza
Hizlaria: Juan Antonio Urbeltz
(Iker Folk-eko zuzendaria)
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Haritz Dantza Taldea

## IS OSTIRALA

19,30 ARGAZKI ERAKUSKETA
Gaia: Soka Dantza
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Haritz Dantza Taldea
Laguntzailea: Foto Azkue
Hilak 30a arte.

## El 11 12:1 111 A

### "La Señora Doubtfire"

USA 1993
Zuzendaria: Chris Columbus
Aktoreak: Robin Williams, Sally Field, Pierce Brosnan.
Daniel Hillard (Robin Williams), langabezian dagoen bikoizketa aktorea da. Dena den, edozer egiteko prest dago bere hiru seme-alabekin egotearren. Zoritxarrez, seme-alabei gustuko zaizkien ezaugarriak, umorea eta bizitzeko rnodu eroa, Mirandaren (Sally Field) senar aproposa izatea debekatzen dizkionak dira. Hamalau urtez ezkonduta egon eta gero, Mirandak dibortziatzeko eskatuko dio, baita seme-alaben zaindaritza ere. Daniel ez dago amore emateko prest, horregatik ez ohizko "gizon" berria bihurtuko da.

## SAN PEDRO KALEKO JAIAK

### HILAK 8, OSTIRALA

18,30 Jaien hasera txafligu j aurtiketarekin
19,00 Mountain-bike lasterketa
20,30 "Show conexion" taldea
23,00 Berbena, talde berberarekin
24,30 Txerri harrapaketa nagusientzat

### HILAK 9, LARUNBATA

11,00 Meza "Tuna Andurifia"k lagunduta
12,00 Salda dastaketa
12,30 Poteoa auzoan
15,00 Haurrentzako parkea
18,30 Txokolate jana haurrentzat
19,00 Sokamuturra
20,30 "Passarela" orkesta
23,30 "Paco Formoso y sus Marichis" eta "Passarela"
01,00 Zezen mekaniko sariketa.
05,00 Txokolate jana.

### HILAK 10, IGANDEA

11,30 Ezkodu eta ezkongabeen arteko futbito partidua
12,30 Aizkolariak
13,30 Sardinada "Os Galaicos" taldeak alaituta
17,30 Sokamuturra
19,00 "Quasar" orkesta
22,00 Berbena
24,00 Jaien bukaera.

## txandak

### FARMAZIAK:

9, larunbata: Yudego
10,igandea: Yudego
11,astelehena: Bidasolo
12,asteartea: Bidasolo
13,asteazkena: Bidasolo
14,osteguna: Bidasolo
15,ostirala: Bidasolo

### OKINDEGIA:

10, igandea: FOTERO

**UNED BERGARA**

San Martin Plaza z 9
76 13 42 / 43
BERGARA

**EZ ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZAK**

E.G.A. mAnA
SAKONTZE I ETA II MAILA
❑ PSIKOMOTRIZITATEA
GERONTOLOGIA
PSIKO-SOZIALEAN MASTERRA

**ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZAK**

❑ SARRERA IKASTAROA
7 1 ZUZENBIDEA
• GEOGRAFIA ETA HISTORIA
E HISPANIAR FILOLOGIA
❑ EKONOMI ZIENTZIAK
E ENPRESAL Z1ENTZIAK
ri FISIKA ZIENTZIAK
El MATEMATIKA ZIENTZIAK
❑ SOZIOLOGIA
Li PSIKOLOGIA
CI HEZKUNTZ ZIENTZIAK

**AURTENGO BERRIKUNTZAK**

GESTIO INFORMATIKA (3 URTE)
■ SISTEMEN INFORMATIKA (3 URTE)

**Lehenengo aldiz matrikulatu nahi duenak, aurreinskripzioa egin beharko du uztailaren 29a baino lehen. Behin eskaera onartu ondoren, matrikula egin beharko da irailaren 20tik urriaren 17ra bitartean.**



UDfIKD METWITU
*LEHMKETA*

?")~,
**BARRENd**

***44 qe4 4411 rileita***
***eteddilw rateite***



***raervvr,~ 424-tecut***
***c~it,tr.:a4 eta wria4***

GENERALI ASEGURUAK
"RONKINA" Aitor Eizagirre
Santa Ana 20. Tel. 74 41 01




**Golf GTI. Ezin kendu burutik.**

**A utos Eibar,** **Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR**